eskubideak eta berdintasuna daude Nahiko programa osoaren eta, bereziki, landu ditugun aurreko bi unitate didaktikoen oinarrian eta mamian. Berdintasunik gabe ezin dira zainketa eta aniztasuna Nahiko programak ulertzen dituen moduan ulertu. Emakume eta gizonen arteko berdintasunik gabe, zainketa nahiz aniztasuna alienatzaileak, menpekoak, txiroak, diskriminatzaileak eta guztiz injustuak izan daitezke, eta izan ohi dira. Berdintasunik gabe, zainketa eta aniztasuna beste zerbait dira. Soilik berdintasunerako heziketak ziurtatu dezake zainketarako eta aniztasunerako heziketa, giza eskubide eta tratu onerako heziketa.

## 2 MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktiko honek material osagarri edo jolas bakarra du, "Berdintasunaren oka jolasa", jolas honek bi osagarri dituelarik:

1.- "**Berdintasunaren oka jolasa" jolas taula**: lau ale berdin-berdinak oka jolasa ikasleekin talde txikietan jolasteko.

2.- 53 kartaz osaturiko **lau baraja ezberdin** (jolas taula bakoitzarako bat), bakoitzak karta berdeak eta zuriak dituelarik. Karta berdeak (ohizko okaren laukietan erabiltzekoak) mimika frogak dira. Karta zuriak (ohizko okako pasoko laukiak) egia ala gezurra frogak dira. Karta bakoitzak halako bi froga edo esaldi ezberdin ditu, beraz, denetara, 424 egoera edota kontzeptu ezberdin jasotzen dira ikasle neska-mutilekin lantzeko.

Hona oka jolasa hau esandako frogekin jolastu aurretik edo atzetik egin daitezkeen **hainbat ariketa osagarri:**

**Taula eta karten irudiak ezagutzea**. 212 karta edo okaren 4 taulak banatu eta irudiak komentatzea, jolasaren testuinguruan duten esanahia(k) definitzea. Gehien harritu, interesatu, gustatu edo ez, ezezagunak diren horietan erreparatu eta zergatiak esatea. Irudi osagarriak bilatzea, sinonimoak, antonimoak... Hormirudi eta mapa kontzeptualetan sailkatu eta taldekatu, erakusketak, laburpenak, aurkezpenak egitea… Momentuko berriekin, eskolako gertakariekin, irakurritako ipuin eta ikusitako filmeekin, etab. lotzea.

bre, de la igual dignidad, libertad y derecho de toda mujer y todo hombre, de toda chica y todo chico, de toda niña y todo niño. La igualdad y los derechos humanos subyacen a todo el planteamiento del Programa Nahiko en general y a las dos unidades didácticas anteriores en particular. Sin igualdad entre mujeres y hombres no se pueden entender el cuidado ni la diversidad del modo en que nos hemos referido a ellas. Sin igualdad, tanto el cuidado como la diversidad pueden ser, y generalmente son, serviles, alienantes, pobres, discriminatorios... injustos. Sin igualdad el cuidado y la diversidad son otra cosa. Sólo la educación para la igualdad garantiza la educación para el cuidado y la diversidad, para los derechos humanos y los buenos tratos.

## 2 MATERIALES Y ACTIVIDADES

Esta unidad didáctica tiene **un único juego** o material complementario, El juego "La Oca de la igualdad", con dos componentes o elementos diferenciados:

1.- **Tablero "La Oca de la igualdad"**: cuatro ejemplares de un mismo tablero para jugar por grupos al juego de la oca.

2.- **Cuatro barajas diferentes** (una para cada tablero) de 53 cartas cada una, con cartas verdes y cartas blancas. Las cartas verdes (casillas de la oca) plantean pruebas de mímica. Las cartas blancas (casillas de paso), pruebas de verdadero o falso para cada una de las casillas del tablero de juego. Cada carta tiene dos pruebas o frases diferentes, lo que hace un total de 424 situaciones o conceptos distintos para trabajar con las alumnas y alumnos.

Algunas **actividades complementarias** recomendadas, antes o después de realizar el juego con las pruebas mencionadas, pueden ser las siguientes:

**- Conocer las imágenes del tablero y las cartas**. Repartir las 212 cartas o/y los 4 tableros de la oca y comentar las imágenes, definir el significado que tienen en el contexto del juego. Señalar las que más nos extrañan, interesan, sorprenden, gustan, disgustan, desconocemos... y decir por qué. Buscar imágenes complementarias, sinónimos, antónimos... Clasificarlas y agruparlas en mura-







ISBN 10:84-89630-10-0
ISBN 13:978-84-89630-10-9

tratu txarrak — NAHIKO! 3-4 — berdintasuna
maltrato — igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna — Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

IRAKASLEAREN GIDA
GUÍA DEL PROFESORADO
5

# BERDINTASUNA
# IGUALDAD

UNIDAD DIDÁCTICA 3 UNITATE DIDAKTIKOA

## 1 HELBURU ETA EDUKIAK

Hirugarren unitateak aurreko biak laburtu eta osatzea du helburu. Lehenengo unitateak, oro har gure gizartean eta gizon nahiz emakume bakoitzaren bizitzan zainketaren garrantziaz eta beharraz ohartzeko aukera eman zigun. Norbanakoaren zainketan erantzukizunerako heziketarik gabe, nekez lortuko dugu gure ikasleak pertsona autonomo eta osoak izatera iritsi arte gara daitezen. Familiaren zainketan erantzukizunkidetzarako heziketarik gabe, nekez izango ditugu familia eta bikote harreman justuak, errezpetuzkoak, positiboak eta atseginak. Eta nekez ere, emakume eta gizonen artean tratu onak. Zainketa sozialean erantzukizunkidetzarako heziketarik gabe, zaila izango da gure gizartea justua izatea, pertsona guztien ongizatea ahalbideratzen duen gizartea izatea.

**Zainketa zainduz ikasten da,** eta emakume nahiz gizonek horrela ikasten dute. Horrela ikasten du arduratsua den eta bere buruarekin, bikotearekin, familiarekin, hurbileko pertsonekin, bere auzoarekin, bere gizartearekin… arduratzen den pertsona orok -gizon edo emakume-. Horrela ikasten da beste pertsona batzuengadik eta beste pertsona batzuekin. Horrela ikasten da ere, eskolan. Soilik eskolak hori nahi izan, arduratsua sentitu eta erantzukizuna hartzea da beharrezkoa. Horrek zera dakar: zainketa eta zaintzen duten pertsonak eta hauen ezagupenak, aprendizaiak, gaitasunak, lanak eta lorpenak birbaloratu eta aitortzea. Egun, gure gizartean pertsona hauek emakumeak dira gehien bat. **Eskolan zainketarako hezitzea** emakumeek burututako eginkizun hori ikustarazi, errespetarazi eta horretatik ikastea da. Eskolan zainketa eta erantzukizunkidetzarako hezitzea ikasle guztiek emakumeek egindako zainketaren kultura berdin ikasi, baloratu eta ohartaraztea da. Erantzukizunkidetza eta zainketarako heziketa oinarrizko gakoa dugu gure ikasleen garapen pertsonala, harremanak, bikote bizitza eta bizi diren gizartearen garapena justuagoak, orekatuak, atseginak eta arrakastatsuak izateko.

## 1 OBJETIVOS Y CONTENIDOS

Esta tercera unidad didáctica pretende resumir y completar las dos anteriores. La primera unidad didáctica nos permitió descubrir la importancia y la necesidad del cuidado en nuestra sociedad en general y en la vida de cada mujer y cada hombre en particular. Sin una educación para la responsabilidad en el cuidado personal difícilmente podremos hacer que nuestras alumnas y alumnos se desarrollen íntegramente hasta ser personas autónomas y plenas. Sin una educación para la corresponsabilidad en el cuidado familiar difícilmente podremos tener unas relaciones de pareja y familiares justas, respetuosas, positivas y gratificantes, difícilmente podremos tener buenos tratos entre mujeres y hombres. Sin una educación para la corresponsabilidad en el cuidado social difícilmente puede nuestra sociedad ser una sociedad justa que posibilite el bienestar de todas las personas.

**A cuidar se aprende cuidando**, y lo aprenden así tanto las mujeres como los hombres. Lo aprende así toda persona -hombre o mujer- que se siente responsable y se responsabiliza de sí misma, de su pareja, de su familia, de otras personas cercanas, de su barrio, pueblo, sociedad... Se aprende así de otras personas y con otras personas. Se aprende así, también, en la escuela. Sólo hace falta que la escuela quiera hacerlo, que se sienta responsable y se responsabilice. Ello conlleva un reconocimiento y una valoración importantes del cuidado y de las personas que lo realizan, de sus aprendizajes, de sus conocimientos, de sus capacidades, de sus trabajos y de sus logros. Actualmente en nuestra sociedad, estas personas son mayoritariamente mujeres. **Educar para el cuidado en la escuela** es visibilizar, respetar y aprender de esa labor desarrollada por las mujeres. Educar para la corresponsabilidad y el cuidado en la escuela es posibilitar que alumnas y alumnos vean, valoren y aprendan por igual la cultura del cuidado de las mujeres. La educación para la corresponsabilidad y el cuidado es un elemento básico y fundamental para que su desarrollo personal, sus relaciones interpersonales, su vida de

Bigarren unitatean, genero estereotipo tradizionalak aztertu genituen (gizonaren ohizko eredu soziala eta emakumearen ohizko eredu soziala), Oka jolasaren bi taula bezala irudikatuz: **Nesken Oka** eta **Mutilen Oka**. Bi taula hauek zeharo ezberdinak diren bi bizitza ibilbide irudikatzen dituzte. Oka hauek, norbanakoaren aniztasuna baliogabetuz, emakume izateko era konkretu eta bakarra, eta gizona izateko beste era konkretu eta bakarra ezartzen dituzte. Bi ibilbide hauen amaiera itxuraz berdina eman badezake ere ("ezkondu eta zoriontsu izan ziren"), batzuen eta besteen formakuntza, trebakuntza, estatusa eta errekurtsoak ezberdinak dira, oso. Bizitza ibilbide tradizional hauek ardura ezberdinak izateko eta lan ezberdinetarako prestatzen dituzte ("laranja erdiak" egiten dituzte, pertsona erdiak, ezberdinak eta bereiziak, eta haien arteko gabezietan osagarriak). Bi oka jolas hauek orokorrean bizitzarako, eta bereziki bikote harremanetarako beharrezkoak diren errekurtso ezberdinak ahalbideratzen dituzte emakumeentzat eta gizonentzat, emakumeak behe-mailako eta gizonekiko dependentzi egoera batean kokatuz (desberdintasuna, nagusitasuna, dependentzia eta tratu txarrerako arriskua).

Literalki hartuta ("benetan" eta hitzez hitz hartuta), Nesken Okak eta Mutilen Okak **aniztasunerako aukera oro**, aniztasun eta errespeturako heziketarako aukera oro, baliogabetzen dute. Bizitza ibilbide horietan pertsonaren gainean eredu soziala nagusitzen da, molde soziala izaki indibidualaren gainean ezartzen da. Gure ikasleak ezingo dira inoiz pertsona bakarrak eta errepikaezinak, askeak eta autonomoak izan oka hauek heziak badira. Haien eskolak bi ibilbide ezberdin hauetarako prestatu eta hezitzen baditu, ezingo dute inoiz pertsona autonomoak bezala libreki eta osotasunean garatu. Neskak era konkretu batekoak eta mutilak beste era konkretu batekoak izan behar dutela uste eta ikasiz gero, gure ikasleek ez dute inoiz aniztasun pertsonalaren balorea eta errespetua ikasiko, diferentzi indibidualaren balore eta errespetua ikasiko.

**Eskolak** eredu tradizionala birsortzen jarrai dezake: neskak Nesken Okaren antzerako bizitza ibilbiderako hezitzen (soilik eta espreski zainketarako), eta mutilak Mutilen Okaren antzerako bizitza ibilbiderako hezitzen (soilik eta espreski lehiarako). Bestalde, eskolak gizonen eredua hautatu, orokortu, eta emakumeen eredua (zainketa) gutxietsi dezake, eta neska-mutil guztiak Mutilen Okaren bizitza-ibilbiderako hezitu, hau delarik gaur egun eskoletan nagusitzen ari den joera. Kontrakoa ere egin dezake eskolak, hau da, Nesken Okaren antzera hezitu neska-mutik guztiak; baina emakumeei dagokien guztian orokorrean ematen den gutxiespenak aukera hau baztertzea eragiten du partziala eta eskasa delako, aurreko aukerarekin (mutilen ereduaren unibertsalizazioarekin) gertatzen ez den zerbait izanik (berdin-berdin eskasa eta partziala dena, bai pertsonalki bai sozialki). Azkenik, eskolak neska-mutilak bakoitzak bizitza ibilbide propio eta pertsonala gara dezan hezi ditzake (aniztasunerako hezitu), oka bien elementuekin (honek, gure gizartean eta egun, zainketarako heziketa errekuperatzea eskatzen du).

Zainketa eta erantzukizunkidetza bezala, errespetatzen eta dibertsifikatzen ikasten dira aniztasuna eta errespetua. Eta eskolan ere horrela ikasten dira (ala ez). Aurreko paragrafoan esan dugunez, **eskolak emakume eta gizonen aniztasun eta errespeturako hezi dezake,** emakume eta gizonen papera tradizional eta sozialetarako hezi beharrean. Nesken eta Mutilen Oka ezagutu, ulertu, aztertu, aldatu eta errefusatzen irakats dezake. Bi bizitza ibilbide hauetarako alternatiba bat proposatu dezake, bi taula hauek eraldatzen joan daiteke bestelako taula batera zuzendu arte, bestelako jolasera, bestelako heziketara iritsi arte.





Zentzu honetan, hirugarren unitate didaktikoak **Berdintasunaren Oka** proposatzen du, bizitza ibilbide berri bat neskak nahiz mutilentzat, bizitza ibilbide pertsonal eta indibiduala, non aurreko bi ereduen (bi oken) elementuak jasotzen diren. Beraz, hezkidetzaren aldeko oka da, ohizko bi genero ereduen diskriminazioaren kontrakoa, eredu horietako baten nagusitasunaren aurkakoa (gaur egun, gure gizartean, gizonen eredu unibertsal eta bakarra). Helburua honako hau da: gure ikasleek, bai neskek eta bai mutilek, garatzen diren pertsona osoak izateko, bizitzaren arlo guztietan autonomiadunak izateko, eta bizitzan orokorrean eta bereziki bikote eta familia bizimoduan berdintasunean oinarritutako harremanak edukitzeko behar dituzten ikasketa guztiak egin dezatela. Soilik horrelako bizitza ibilbide pertsonal bat eginez ahal izango dute neskek eta mutilek desberdintasunak, menpekotasunak eta tratu txarren arriskua saihestu euren bikote harremanetan eta euren familietan. Soilik horrelako ibilbide bat eginez bilakatuko dira zainketaren ardurakide, soilik horrela errespetatuko dute besteen aniztasuna eta soilik horrela izango dira elkarrenganako tratu onen iturri.

Nahiko programak proposatzen duen bizitza eta garapen pertsonal eta famili eta giza arteko harremanen proiektua, berdintasunean, askatasunean, aniztasunean eta elkarren arteko zainketan oinarritutako proiektu hau, Nazio Batuek eginiko **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren** helburua eta oinarria da. Aldarrikapen honen sustraia eta euskarria emakume eta gizon ororen, neska eta mutil ororen duintasun, askatasun eta eskubide funtsezko berdintasunean datza. Giza

pareja y el desarrollo de su sociedad sean más justas, equilibradas, satisfactorias y exitosas.

La segunda unidad didáctica analizaba los estereotipos tradicionales de género (el modelo social de hombre y el modelo social de mujer) representándolos como dos tableros de la oca, **la Oca de las chicas y la Oca de los chicos**. Estos dos tableros representan los dos itinerarios vitales diferentes que, anulando toda diversidad individual, establece una forma determinada única de ser mujer y una forma determinada única de ser hombre. Aunque aparentemente el final de ambos recorridos pueda parecer el mismo ("se casaron, fueron felices y comieron perdices"), no lo son la formación, la capacitación, el estatus y los recursos de unas y de otros. Estos dos recorridos vitales tradicionales enseñan diferentes responsabilidades y capacitan para diferentes labores (hacen "medias naranjas", medias personas diferenciadas y complementadas en sus carencias entre sí). Estas dos ocas posibilitan diferentes recursos para la vida en general y para las relaciones de pareja en particular a hombres y a mujeres, situando a éstas en una situación de inferioridad y dependencia frente a aquellos (desigualdad, dominio, dependencia y riesgo de maltrato).

La Oca de las chicas y la Oca de los chicos, tomadas en sentido literal estricto ("en serio"), anulan toda posibilidad de **diversidad**, toda posibilidad de educación para la diversidad y el respeto. En esos recorridos vitales prevalece el modelo social a la persona, el molde social se impone al ser individual. Nuestras alumnas y alumnos nunca podrán ser personas únicas e irrepetibles, libres y autónomas, si son educadas con estas ocas. Si sus escuelas les preparan y enseñan para estos dos caminos diferenciados, nunca podrán desarrollarse libre e integralmente como personas autónomas. Nunca aprenderán el valor y el respeto de la diversidad personal, de la diferencia individual, si creen y aprenden que todas las chicas deben ser de una determinada manera y todos los chicos de otra determinada manera.

**La escuela** puede reproducir el modelo tradicional y seguir educando a las alumnas para el recorrido vital de la Oca de las chicas (sólo y exclusivamente para el cuidado), y a los alumnos para el recorrido vital de la Oca de los chicos (sólo y exclusivamente para la competición). La escuela también puede optar por el modelo de los hombres, universalizarlo y, despreciando el modelo de las mujeres (el cuidado), educar a las alumnas y a los alumnos para el recorrido vital de la Oca de los chicos, siendo ésta la opción mayoritaria en los centros hoy en día. También podría lo contrario, educar a todas y todos para la Oca de las chicas, pero la generalizada minusvalorización de todo lo concerniente a las mujeres provoca el rechazo de esta posibilidad por parcial e insuficiente, lo que no ocurre en la opción anterior (exactamente igual de parcial e insuficiente tanto personal como socialmente). Y, por último, la escuela puede educar a chicas y a chicos para que construyan su propio y personal recorrido vital (educarles para la diversidad) con elementos de ambas ocas (lo que, en nuestra sociedad actual, implica recuperar la educación para el cuidado).

Como el cuidado y la corresponsabilidad, la diversidad y el respeto se aprenden diversificando y respetando. Y se aprenden (o no) también en la escuela. Como decíamos en el párrafo anterior, **la escuela puede educar para la diversidad y el respeto de mujeres y hombres,** en lugar de educar para los papeles sociales tradicionales de mujer y de hombre. Puede enseñar a conocer, a entender, a analizar, a cambiar y a rechazar la Oca de los chicos y la Oca de las chicas. Puede proponer una alternativa a estos dos recorridos vitales, puede ir transformando esos tableros hasta llegar a otro tablero distinto, a otro juego, a otra educación diferente.

En esta línea, esta tercera unidad didáctica propone **la Oca de la igualdad,** un recorrido vital tanto para chicas como para chicos, un recorrido vital personal e individual en el que se incluyen elementos de los dos modelos (ocas) anteriores. Es pues, una oca coeducativa, un modelo coeducativo contrario a la discriminación de los dos modelos de género y contrario también a la universalización de uno de ellos (en la actualidad, el modelo único masculino). El objetivo es que tanto nuestras alumnas como nuestros alumnos tengan los aprendizajes necesarios para desarrollarse integralmente como personas completas, capaces de vivir con autonomía en todos los ámbitos de la vida, y para establecer relaciones de igualdad en la vida en general y en sus relaciones de pareja en particular. Sólo con un recorrido vital así podrán chicas y chicos eludir las desigualdades, las dependencias y el peligro de malos tratos en sus relaciones de pareja y en su vida familiar. Sólo con un recorrido así serán mujeres y hombres corresponsables del cuidado, respetuosos de la singularidad ajena y fuente de buenos tratos mutuos.

Este proyecto de vida personal y de relaciones familiares y sociales basadas en la igualdad, la libertad, la diversidad y el cuidado mutuo que propone el proyecto Nahiko está en la base y es el objetivo de la **Declaración Universal de los Derechos Humanos** de la ONU. Esta declaración se articula en torno al reconocimiento radical de la igualdad intrínseca de toda mujer y todo hom-




- Irudiren bat aldatu, gehitu edo kenduko litzatekeen ikusi, Berdintasunaren Oka jolas hau taldearen bizitza, behar, itxaropen, helburu, jarduera eta zaletasunei moldatzeko helburuarekin.
- Eskolari dagokionez, nola izango litzateke Eskolako Berdintasunaren Oka? Nolako osagarriak izango lituzke? Zer lauki eta irudi izango lituzke? Zer eskola ibilbide egingo lukete ikasle neskek eta ikasle mutilek?

### 3.2. JOLASAREN DINAMIKA:

Oka jolasarekin jolastu aurretik, oso garrantzitsua da ikasleek **taula eta bere irudiak** ondo ezagutzea. Horretarako gida honen bigarren atalean aipatu diren ariketak erabil daitezke.

Jolasteko modua ohizko okarena da, dadoa jaurti eta lortutako balioaren arabera aurrera egiten delarik. Lauki ezberdinetan egin behar diren **frogak** direla eta, ezberdina da jokaldia berdeen eta zurien kasuan. **Lauki berdeetan** (mimika froga), froga laukian erortzean egiten da (laukira iristerakoan). Jokalariak froga gainditzen badu, hurrengo lauki berdera egingo du salto eta dadoa berriro jaurtiko du ("Neskak eta mutilak salto berriro eta dadoa jaurti astiro"). Asmatzen ez badu, bertan geratuko da salto egin eta jaurti gabe. **Lauki zurietan** (egia ala gezurra froga) froga laukitik irtetzerakoan egin behar da. Hau da, dadoa jaurti eta laukira iristen denean ez da froga egiten, hurrengo txandan baizik. Froga gainditzen bada, dadoa jaurti eta aurrera egiten da. Froda gainditzen ez denean, bertan geratu behar da hurrengo txandan dadoa jaurti eta jarraitzeko.

Frogen dinamika honek **taldeka jolastea** ahalbideratzen du, hau da, jokalari bakarra izan beharrean talde bat izatea, frogak taldeka eztabaidatu eta egiteak jolasa piztu eta hausnarketa aberastu egin dezakelako. Bestalde, lau baraja ezberdin daudenez (atzekaldeko kolorea ezberdina dute elkarren artean bereizteko) Berdintasunaren Oka jolas honekin jolasten den bakoitzean, **kartak aldatuz froga berriekin jolas daiteke,** ikasle talde bakoitzarentzat jolas berria bilakatzen da.

que aportan a las chicas y a los chicos.
- Contar o escribir la historia de la Oca de la Igualdad, las peripecias del recorrido y los cambios que se van produciendo en la chica o el chico que haga este recorrido vital.
- Ver si se cambiaría, añadiría o eliminaría alguna casilla o alguna imagen con el objetivo de adaptar esta Oca de la Igualdad a sus vidas, necesidades, ilusiones, actividades, aficiones, etc.
- En lo concerniente a la propia escuela, ¿cómo sería la Oca de la Igualdad en la vida escolar?, ¿que viñetas e ilustraciones tendría?, ¿qué recorrido harían las alumnas y los alumnos?

### 3.2. DINÁMICA DE JUEGO:

Es importante que antes de jugar a la oca, el alumnado conozca **las imágenes del tablero** mediante algunas de las dinámicas sugeridas en el apartado dos.

El juego es el tradicional de la oca, avanzándose por el tablero según el valor de la tirada del dado. En cuanto a **las pruebas** a desarrollar en cada casilla actuan de diferente manera en el caso de las casillas verdes y blancas. **En las casillas verdes** (prueba de mímica), la prueba se plantea al llegar o caer en la casilla. Si el jugador o jugadora supera la prueba, salta a la siguiente casilla verde y vuelve a lanzar el dado ("Chicas y chicos dan un salto y tiran mientras tanto"). Si no supera la prueba, ni salta ni vuelve a lanzar el dado. **En las casillas blancas** (prueba de verdadero o falso), la prueba se plantea al salir de la casilla. Es decir, se lanza el dado y si se llega a una casilla blanca, no se realiza la prueba sino que se espera al próximo turno. Cuando se recupera el turno, se realiza la prueba. Si se acierta, se puede lanzar el dado y avanzar en el tablero. Si no se acierta, deberá esperarse al próximo turno para poder tirar el dado.

La dinámica de las pruebas permite **jugar por grupos** además de individualmente, ya que el debate y resolución de las pruebas en grupo puede animar la actividad y enriquecer la reflexión. La existencia de cuatro barajas diferentes de pruebas (se distinguen entre sí por el color del reverso), permite **cambiar las pruebas cada vez que se juegue con el tablero** de manera que en cada ocasión sea un juego diferente para cada grupo.




ISBN 10:84-89630-10-0
ISBN 13:978-84-89630-10-9

tratu txarrak · maltrato · NAHIKO! · 3-4 · berdintasuna · igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna · Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

IRAKASLEAREN GIDA
GUÍA DEL PROFESORADO 6

# BERDINTASUNA
# IGUALDAD

UNIDAD DIDÁCTICA 3 UNITATE DIDAKTIKOA

Karta eta taulari **irudi berriak gehitzea**. Irudi berriak asmatzea, istorio motzak sortzea, etab. Irudi bakoitzarentzat egia ala gezurra jolasera jolasteko esaldi berriak asmatu, eta abar.

**Aurkeztea, kontatzea, antzeztea…** Karta sorta bat banatu (berdeak eta zuriak) eta hauetan oinarrituz deskribapen motzak edo errelatoak idatzi, elkarrizketak, antzezpenak egin… euren edukia kontutan harturik.

## 3 "BERDINTASUNAREN OKA" JOLASA

Taldeka jolasteko mahai-jolasa.

**Osagaiak:**
- "Berdintasunaren Oka" jolasaren lau taula berdin-berdinak.
- 53 kartaz osaturiko **lau baraja ezberdin**. Karta bakoitzak taulako lauki ezberdinetan egin behar diren bi froga ezberdin ditu (lauki guztietan, ohizko okaren berezietan izan ezik: zubia, dadoak, ostatua...). Karta bakoitzak dagokion laukiaren irudia eta zenbakia darama. Lau karta barajek atsekaldea kolore ezberdinekoa dute, beraien artean bereiztu ahal izateko.




les, mapas conceptuales, hacer resúmenes, exposiciones, presentaciones... Ligar con noticias del momento, acontecimientos de la escuela, cuentos que se han leído, películas que se han visto, situaciones del entorno, etc.

**-Añadir imágenes y frases nuevas** a las cartas y al tablero. Inventar ilustraciones nuevas, componer historietas breves partiendo de ellas, etc. Elaborar para cada imagen nuevas frases de verdadero o falso, etc.

**- Describir, contar, narrar, representar...** Repartir un grupo de cartas (verdes y blancas) y escribir breves descripciones o relatos, diálogos, representaciones... en base a su contenido.

## 3 JUEGO "LA OCA DE LA IGUALDAD"

Juego de mesa para jugar en grupos de número reducido.

**Componentes:**
- Cuatro tableros idénticos del juego "La Oca de la Igualdad".
- Cuatro barajas de 53 cartas con pruebas para las casillas del tablero (para todas excepto para las casillas especiales: puente, dados, posada...). Cada carta lleva la ilustración y el número de la casilla a la que corresponde. Las cuatro barajas se distinguen entre sí por el diferente color del






Jolas taula bakoitzak ohizko oka jolasak izaten dituen **63 laukitxo** ditu, irteera eta helmugakoa barne.

Oka egoten ohi den laukiek (1, 5, 9, 14, 18, 23, 27, 32, 36, 41, 45, 50, 54, 59 eta 63 laukitxoak) kolore berdea dute eta adin, itxura, jardun, tresna... ezberdinak dituzten **neska eta mutilak, emakume eta gizonak** islatzen dituzte. Lauki hauetan erortzean zenbaki bakoitzari dagokion txartelaren mimika froga bat egin behar da. Froga hau gainditu gero, hurrengo lauki berdera aurreratuko da jokalaria eta berriro jaurtiko du dadoa:
- Neskak eta mutilak salto berriro, eta dadoa jaurti astiro!

**Lauki bereziak**, taulan kolore horia dutenak, ohiko oka jolasarenak dira:
- Zubitik zubira eta berriro tira (6 eta 12 laukiak).
- Dadotik dadora eta jaurti berriro albora (26 eta 53 laukiak).
- Ostatua (19 laukia): txanda bat jolastu gabe.
- Putzua (31 laukia): jolastu gabe bertatik beste jokalari bat pasa arte.
- Laberintoa (42 laukia): 30 laukira itzuli.
- Espetxea (52 laukia): hiru txanda jolastu gabe.
- Eskeletoa (58 laukia): 1 laukira itzuli.

**Karta bakoitzak** bi froga ezberdin ditu, bi jokalari ezberdin edota jokalari bera bi bider lauki berean erortzen bada, froga ezberdina egin ahal izateko.

**Lauki berdeei dagokien kartek** (ohizko oka jolasean okak betetzen dituen laukiak) mimika jolasa proposatzen dute: keinuen bidez laukian agertzen den pertsonaren bizitza ezaugarri bat asmatu behar dute jokalariek.

**Lauki zuriei dagokien kartek** (ohizko oka jolasean pasoko laukiak) egia ala gezurra jolasa proposatzen dute. Hau da, lauki horietan agertzen diren irudi eta kontzeptuekin lotutako esaldiak jasotzen dituzte, jokalariek esaldi horiek egia ala gezurra diren asmatu behar dutelarik. Esaldi bakoitzak bere soluzioa darama.

**3.1. EDUKIA:**

Oka egoten ohi den lekuetan **nesken eta mutilen, emakume eta gizonen** irudiak daude, euren eguneroko bizitzako hainbat jarduera, ezaugarri eta aspektu ezberdinak jasotzen dituztenak. Emakume eta gizonen arteko lauki zurietan, eguneroko bizitzan egokitzen zaizkien objektu, jarduera eta egoerak azaltzen dira. Modu honetan, hasierako laukiaren neska eta mutila bere **pertsonalitate, bizimodu eta harremanak** garatzen, osatzen eta zehazten doaz jolasean aurrera egin ahala.



Emakume eta gizonen, neska eta mutilen duintasun, askatasun, eskubide, funtzio, lan, zaletasun... berdintasuna azpimarratzeko, kolore berdea duten laukitxoetan pertsonaren sexua eta egiten ari denaren arteko **kontrastea bilatu da nahita**, sexu bakoitzakoak gure gizartean beste sexuari lotzen ohi zaizkien egoeretan jarriz. Esaterako, emakumeen ohizko zainketa lanetan gizonak ipini dira eta alderantziz, gizonen ohizko lan, zaletasun eta tresnekin, emakumeak irudikatu dira. Helburua hauxe da: gizon eta mutilen irudietan pertsona horiei Mutilen Okan egokitzen ez zaizkien egoerak jaso eta alderantziz, nesken irudietan Nesken Okan agertzen ez diren aukerak, modu honetan bai neskek eta bai mutilek beste sexuaren ohizko ereduko aukera eta elementu baliotsuak bereganatu behar dituztela azalduz.













Jolasaren helburua zera da, gure ikasle neska eta mutilek oka honek proposatzen duen **bizitza ibilbidea** osoa dela jabetzea, bizitzaren esparru guztietarako eta pertsona guztientzat, nahiz neska nahiz mutil, nahiz emakume nahiz gizon. Horretarako, oka jolasaren aurretik, bitartean eta ondoren **dinamika ezberdinak** erabil daitezke:

- Berdintasunaren Okaren taula ezagutu eta zein lauki izango lirateke Mutilen Okarenak eta zeintzuk Nesken Okarenak identifikatu.
- Elementu ezberdinek neskei eta mutilei ematen dizkieten ezugarri, jarduera eta aukeren arabera laukietako irudi ezberdinetako esanahia aztertu.
- Berdintasunaren Okaren istorioa kontatu edo idatzi, ibilbide hau egiten duen neska edo mutil batek izango dituen gora-beherak, aldaketak eta bilakaera aipatuz.

reverso de cada una de ellas.
Cada tablero consta, incluyendo la casilla de salida y llegada, de las **63 casillas** habituales del juego de la oca.

**Las casillas que habitualmente ocupa la oca** (números 1, 5, 9,14, 18, 23, 27, 32, 36, 41, 45, 50, 54, 59 y 63) tienen fondo verde y están ocupadas por **chicas y chicas, hombres y mujeres,** de diferentes edades, aspectos, actividades, elementos, etc. Al caer en estas casillas, debe hacerse una de las pruebas de su tarjeta correspondiente (prueba de mímica) y, en caso de superarla, debe saltarse a la siguiente y volver a tirar el dado:
- "Chicas y chicos dan un salto y tiran mientras tanto".

Las **casillas especiales**, que tienen fondo amarillo, son las habituales en el juego de la oca:
- De puente a puente y tiro porque me lleva la corriente (casillas 6 y 12).
- De dado a dado y tiro porque me ha tocado (casillas 26 y 53).
- Posada (casilla 19): un turno sin jugar.
- Pozo (casilla 31): sin jugar hasta que otra jugadora o jugador pase por esta casilla.
- Laberinto (casilla 42): retrocede a la casilla 30.
- Cárcel (casilla 52): tres turnos sin jugar.
- Esqueleto (casilla 58): retrocede a la casilla 1.

**Cada carta** lleva dos pruebas a realizar, de forma que si dos jugadoras o jugadores diferentes caen en la misma casilla, o una misma jugador o jugadora dos veces, la prueba que deban realizar ambos sea diferente cada vez.

**Las cartas que corresponden a las casillas verdes** (las que habitualmente ocupa la oca) plantean un juego de mímica: deben adivinar mediante gestos una característica vital de la persona de dicha casilla.

**Las cartas que corresponden a las casillas de color blanco** (casillas de paso en el juego habitual de la oca) plantean un juego de verdadero o falso. Es decir, recogen frases referidas a los conceptos que representan las ilustraciones y que las jugadoras y jugadores deben decir si son verdaderas o falsas. Cada frase lleva la solución a este interrogante: verdadero o falso.

**3.1. CONTENIDO:**

Las casillas que habitualmente ocupan representaciones de la oca están ocupadas por imágenes de **chicas y chicos** que recogen distintas facetas, actividades, cualidades y características de estas personas en la vida real. Las casillas intermedias entre estas imágenes de mujeres y hombres recogen imágenes que representan **objetos, actividades y situaciones** habituales de la vida cotidiana. De esta manera, la chica y el chico de la casilla inicial van completando, matizando y desarrollando su **personalidad, estilo de vida y relaciones** a medida que avanzan por el tablero de juego.

Para las imágenes de las casillas verdes, en aras a subrayar la igualdad de dignidad, libertad, derechos, funciones, trabajos, aficiones, etc. de unas y otros, **se ha buscado intencionadamente cierto contraste** entre el sexo de la persona y la actividad que desarrolla y que, generalmente, en nuestra sociedad la desempeña el otro sexo. Por ejemplo, hombres en el desempeño de distintas tareas de cuidado tradicionalmente asignadas a mujeres, y viceversa, mujeres en aficiones, trabajos y vehículos habitualmente asignados a hombres. El objetivo ha sido subrayar en las ilustraciones de chicos y hombres los elementos y funciones que no les hubieran correspondido en la Oca de los Chicos y viceversa en el caso de las chicas y mujeres, para que así quede claro que unas y otros deben asumir la parte valiosa del modelo anterior del otro sexo.

El objetivo del juego es que nuestras alumnas y alumnos se percaten mediante el juego del **recorrido vital completo,** para todos los ámbitos de la vida tanto para unas como para otros, que plantea esta oca. Para ello, pueden utilizarse diferentes **dinámicas de contenido** antes, durante y después del simple juego de la oca:

- Conocer el tablero de la Oka de la Igualdad e identificar los elementos que serían de la Oca de las Chicas y los que serían de la Oca de los Chicos.
- Indagar el significado de las distintas imágenes en cuanto a las características, actividades, posibilidades y recursos










